

Carl Maria vonWeber: "*Der Freischütz*" (Obertura)

Carl Maria von Weber (1786-1826) pianista gisa hasi zen musika munduan, baina "*Der Freischütz*" (*Isilpeko ehiztaria*) operagatik igaro da historiara. Obrak oso toki garrantzitsua du Alemaniako opera erromantikoaren finkapenean. Mozart eta Beethoven eta geroagoko Richar Wagner eta Richard Strauss lotzen ditu elkarrekin.

Weberren garaiko gazte alemaniar erromantikoek espirituren eta mamuren fantasiak eta ipuinak maite zituzten. Naturaz gaindiko indarren gaia istorio, eleberri eta antzerki ugaritan agertu zen. Weberrek ederki ezagutzen zuen literatura hura guztia eta, bereziki, gazteen maitemintzea eragozten zuten interbentzio malefikoek istorio zaharra. Horregatik, 1817an, libreto bat idatzi zuen gaiaz, Friedrich Kind-en laguntzaz. Libretoari *Probako tiroa* izenburua eman zion lehenik, eta, gero, *Ehiztariaren andregai*a. Azkenean, ordea, *Isilpeko ehiztaria* aukeratu zuen.

Weberrek ia hiru urte eman zuen obra idazten. Beethovenek, nahiz eta gorra izan ordurako, irakurri zuen partitura, eta galdetzen zion bere buruari ea zein izan ote zitekeen nota eta instrumentu konbinazio bitxi haien soinu emaitza, berak oso bestela ulertzen baitzuen opera.

Obraren argumentua oso sinplea da, eta literatur balio gutxikoa. Pertsonaiak ere sinpleak dira, ia-ia ongiaren eta gaizkiaren estereotipoak. Baina aitortu behar da obraren arrakasta, musikagatik ez ezik, gaiagatik ere izan zela, gaia garai hartako alemaniarren oso gogokoa baitzen.

Isilpeko ehiztaria obrak Carl Maria von Weberren behin betiko arrakasta ekarri zuen, eta alemaniar operarena ere bai, genero bezala. Lehenago, Mozarten "*Txirula magikoa*" eta Beethovenen "*Fidelio*" izan ziren bi mugarri garrantzitsu bide horretan. Horietako lehena Egipton gertatzen zen, eta bigarrena, Espainian eta Flandesen. "*Isilpeko ehiztaria*" obrarekin, aldiz, alemaniar paisaian oinarritutako operen saila hasten da, eta irudi tipikoki alemaniarrek eramaten dira agertokira, herriagandik beragandik ateratako abestirekin eta beste zenbait osagairekin.

Isilpeko ehiztariaren obertura opera osoaren laburpen moduko bat da. Sarrera labur baten ondoren, tronpek basoko bakea adierazten dute. Samielen bat-bateko etorrerak eteten du bake hori. Samiel ehiztari beltz gisa mozorrotutako deabrua da. Weberrek hariaren "tremoloa" darabil kontrabaxuen "pizzicatoaren" gainean: soinu efektu guztiz berria, aditu batzuen ustez alemaniar opera erromantikoaren jatorria. Haren ondotik, operatik ateratako zenbait gai datoz, "Otsoaren amildegia" esaterako, edo klarinetaren esaldi nostalgikoa, operako ederrenetako bat. Pieza gai alai eta herri kutsu garbiko batez ixten da.

Sabin Salaberri